

tzen dan antzerki aldizkako bat bialu digu : eskafikasko. Gure «Euskera» bialiko zaio.

Ta beste gairik izan ez da otoitz egiñik amaitu da batzaraldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1932'ko Garagarñaren 27'an.

Batzar ontan euskaltzain abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Eguskitza, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

1.º Bikario jeneral Etxeguren jaunaren eskutitz bat irakurri da. Ondañoan noski eztabaidan dabiltz, edo *Jesus* edo *Josu* eliz-ikurñinen baten ezarri. Bikario jeneralak galdetzen digu : 1.º si desde el punto de vista lingüístico, hay algo que se oponga al uso de cualquiera de los dos indicados vocablos en una inscripción en lengua vasca. 2.º si desde ese mismo punto de vista, hay alguna razón por la que deba darse la preferencia a alguno de los dichos vocablos.

Luze itz egin da arlo ontaz, bañan urango egunerako utzi degu erabakizko erantzupen bat ematea. Auxe bitarte dala beste erabaki auxe artu da: Euskaltzain jaun bakoitzari Eleizalde jaunaren *Ixendegia* bialiko zaio, liburu auxe begi auréz izan-da, gertu ditezen *izendegi* beñi bat eragiteko, auxe noski berialakotz egin bear dan arazoa zaigu-ta.

2.º Lakonbe jaunak bere lan bat irakurri digu : Berak duen idazti zar batetik bildu ditu adizkera batzuek ta abek adieraztera eman dizkigu. Idaztiñoa 1792'an argitaratua da ta Amikuz'eko euskalkiari dagokio.

3.º Elissalde jaunak esan digu : *Euskalzaleen Bilzarak*, ikasle artean batzaldi bat eragin duela. Aurtengo onek zitu ona izan du ta ikasle oiek beren lanen gai : oianari dagozkion itzak erabili dituzte.

4.º Azkue jaunak gipuzkoako aditzari dagokion lan eder bat irakuri digu ta beste gai batzuek bigarmonerako utzirik otoitzez amaitu degu batzaraldi au.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1932'ko Garagarñaren 28'an.

Batzaraldian euskaltzain jaun abek daude : Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagaray, Altube, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

1.º Bikario jaunari erantzun bear-ta auxe erabaki da : Arazo ontan *politica* dabilela iñork ezin ukatu lezake : oregatik Euskaltzaindiak urutiratu bear du : gañera gaurtandik *euskal-izenen* lana, Euskaltzaindiak bere gain, ataza aundiz, artu lezake ta auxe esan bear zaio : Alegia lan au osoro burutu arte ez dala Euskaltzaindiaren erabakirik azalduko.

2.º Iztegi beñiaren lanak auñera dijoazela, bada-kigu; bañan Euskaltzaindiaren lan oren ageñaldiak bear ditugu. Euskaltzaindiak erabaki du : *Eusker*a'n azalduko ditugu orain arteko lanak, ta iztegiak bear duen *auñe-itzaldi* edo prologoa Ormaetxea jaunak idatzi beza.

3.º *Eusko-Ikaskuntzak* bere gutuntegirako euskal-itzak nai lituzke. Ona emen zerñenda.

3.º Catálogo de sus publicaciones.—*Idazti-irugañen argitaldia; Idazti-aurkibidea.*